

**“BAKOITZAK BEREAN BAKARRIK PENTSATZEN DU ETA HERRITAR TALDE HORI
GALTZEN JOANGO DA”**

-Hola!

-Kaixo Elene maitea!

-Orain elkarrizketa asiko dugu, eta galderak etorkizunaren inguruan izango dira.

-Bale

-Hemendikan 50 urteetara zahar eta gazteen harteko proportzioa nolakoa izango da?

-Pentsatzen det, gaur egun dauzkagun aurrerapenekin zaharrak orain baino zaharragoak izango garela, eta gazteek geroz eta beranduago izaten dituzten umeak, orduan nik uste zaharren poopulazioa handiagoa izango dela.

-Nolakoa izango da etorkizunean?

-Etxeetan familia txikiak izango dira eta gazteak etxeak partekatuko dituzte. Alkilerrean egongo dira bizitzen etxea erosi beharrean, ez dutelako dirurik edukiko beraiek partikularki erosteko.

-Herritarrak aberatsagoak ala pobreagoak izango dira?

-Pobreak direnak pobreago tamalez, eta aberatsak direnak aberatsago. Geroz eta traba gehiago eskatuko dira lanerako, estudio haundiak dituztenak bakarrik edukiko dute lana eta kontratuak gaur egun dauden bezela, ez dut uste diru asko irabaziko duenik gazteak.

-Zertan egingo dute lan?

-Beti bezala tabernak eta abar egongo dira baino pentzatzen det hemendik 50 urtetara, automatizatuta egongo direla tailer asko eta hortik jo beharko du jendeak.

-Nolakoa izango da herritarren garraioa?

-Orain asko pentsatzen denez ez kutsatzean eta horrelako gauzetan, nikuste banakako kotxeak geroz eta gutxiago egongo direla, asko kutsatzen dutelako. Garai hartako transporte publikoa erabiliko dela uste dut, gutxi kutsatzen dutenak.

-Nolakoa izango da 2050ean energia kontsumoa?

-Energia ahal den garbiena izango da, esan nahi det, eholikoak energia solarrak eta horrelako gauzak erabiliko dira, gutxiena kutsatzen duena eta etorkizunean pentsatzen mundua ahalik eta gutxien izorratzeko.

-Nolakoak izango dira etxeak?

- Etxeak ere automatizatuta eta bakoitzak bere teilatuan plaka solarra duela.

-Herritarren hartzeko giroa nolakoa izango da?

-Gauzak doazen bezala oso egoistak izango gara, bakoitzak berean bakarrik pentsatzen du eta orain daukagun herritar talde ori pixkanaka galtzen joango da. Bakoitza bere etxeo familia mantentzera joango da baino oraingo elkartasun ori gabe.

-Bale oso ondo, hau izan da guztia eta eskerrik asko! Aioo!

-Aiiioo!